

ZELAN ZAINDU ZIRAN OSORIK EPAITUEN MEZUAK

1939'an Aleman eta Batuen arteko guda asi zanean, jges eginda egon ziran Euskaldunak ez ziran egon bakez euren alaberrarekin, Alemanak Franko'ren lagunak izan zirelako. Geroztik agertu zan lez.

Paris'eko Euskal ordezkarietan, laster asi ziran bearrezko neurriak artzen, galbide guztiak desagertu daitezcan Alemanak agertzerakoan, bai eurentzat bai bestientzat.

Ordezkaritzaren eskutuko arduaradunak, pardel batzuk bigaldu eutsozan Dax'en bizi zan anaiari, euki ebazan paperak arriskukoak izan ziralako, Alemanen eskuetara jaustia izan balitz. Eurak gordetzea izan zan agindua, Alemanak Dax'era ondoratu arte.

Jakin gendunean, Alemanak Dax'era sartzan dioazela, kartoizko pardel aundietan egon ziran agiriak apurtu genduzan. Gau osoa egin gendun agiriak erretan, Eleiz-Nagusiaren apaiz etxean, gela bateko tximinian. Paris'eko arduaradunaren anaia bizi-zan lekua zan.

Agiriak erretzen joan giñan'en neur'ian, erabilitako (kartoizkoa) pardeltxiki luzanga bategaz topo egin gendun, erroparen dendatan ibiltzen dabezanak arkondarak gordetzeko edo alango pardel-bat.

Izkillatzeko izan ziran Gudarien, azkeneko orduan idatzitako berbak ikusi genduzanean, gorde eta ez-apurtzeko erabagia artu gendun ala edo nola, oroi-garrizko agiriak merezimendu guztian ziralako. Negarrez eta begiak malkoz beterik irakurten ibili giñan, aiek ereduizko aitormenak; edozein paper zatitan idatzitakoak. (Batzuk, txokolatearen azal zatitan idatzita). Nolako gazteak euki ebazan EUSKADIK!: "Jauna artuta gero, iltzeko bildur-gabekoak, prest egon ziranak; ia danak, euren KRISTAU FEDE-BEREZIA aitortuz".

Gogoan geratu jatan agiria, laburtzua izan zan, baiña adierazgarria bera, argi-argi erakusten ebana eurak artu eben irakaskintza: "España'ri narda egiten edo gorrotatzen ez diegu irakatsi, EUSKADI MAITATZEN irakatsi dozkue, eta JAINKOAREN GANA EUSKADIREN BIDETIK!".

Eleiz-Nagusiaren koruan (oso zailla bertara eltzeko) organu barruan gogoratu gendun izango zala, erliki-tegi edo pardel bereziori ostontzeko lekua. Eta an ostondu eban organu-joleak, ziurrezko lekuan.

Alango egun baten, aleman-gudari musika-zale bat eta organu-jole trebea igon zan korura, bere bildumatik zati batzuk jotera. Ustegabeko agertua ikusita eta aurrerantzean sarriago, bai beste aleman-gudariekin izan leike lakoan, pardeltzua organutik ataratia erabagi gendun, eta beste apaiz bateri emon gordezko. Oso pozik artu eban ardura ori arrisku aundia euki arren. Onek, zorionezko burutapena euki eban, idatz-lan guztiak kuaderno baten berriz idaztea, ordu askoko lana izan arren. Gero, berak gorde eban pardeltzua ori.

Guda amaitu zanean, Paris'eko pardelak artu ebazanak, bere anaiari emon eutson, ordurako ordezkariaren ardura berriz artu ebalako, ALTXOR BITXI-EDER ORI.

España'ra erri-agintea eldu zanean, Euskaldun edo Gudari izkillatuen seni-tarteko batzuk, idaz-lan orren izaera jakin eben. Ajuriegerra jaunari bigalduak ziran ia guztiak, berak banantzen ebalako bear zan unetxo egokian. Ez dakigu zer gertatu zan. París'en ordezkariatzako arduradunak bere lan-postua itzi eban denborea zan.

Beste aldetik, guk egin genduzan ardurazko lanez gain, berezitasunezko altxor-bitxi aiek aurkitzeko alperrak ziran. Ez bearrezko gauza baten-bat gertatu zan

Guk itxaroten gendun, erri-agintea agertzerakoan, Eusko Alderdi Jeltzaleen eskuetan egon ziran lez idaz-lan auek, berak emango ebalako ezagutzera aukan tresneri guztien bitartez. Aldizkariak askatasunean egin ziran; Euskal-telebista biak eta Euskal-irratia ere bai. Baiña zekula-be es da agertu iñon idazbitxi orren adierazpenik, gazte-berri artean ezinbesteko-on egingo ebana, gaurko gazteak ez dakielako guda-aurreko eta osteko gazteen artean nolako indarra ta sinismena euki eben JAINKOA'gan eta ABERRIAN, euretzat jarrai-bide edo eredu bikain izan daitezcan.

Alango egun berezi baten, baietza emon euskuen: "esku-baltz baten bat arduratuta egon zala", idatz-lan bitxi oiek, odolagaz ziñatuta egon ziran atorraldiak, ikusirakurriren argitara ez daitezcan agertu.

Nire agiritegian daukat, idatzi ziran birtxi berezi oiek argazki-ugaritakoaz berriz ataratako kuadernua. Baten baiño sarritan irakurtzen dodaz biotz-ikararekin.

MITXELEÑA'tar MANUEL
ATUTXA'tar PAUL
(2000-03-24)